IHEO - IRAUPEN LUZEKO BIDAIA-LAGUNTZAK

2018 – 2019KO ARAUDIA

Deskribapena

IHEOak iraupen luzeko 3 bidaia-laguntza emanen ditu. Laguntza hauek ikasleei zuzenduta daude atzerrian egonaldi linguistikoak egiteko, beti ere bere esperientzia Eskolako hezkuntza komunitatera itzultzeko konpromisopean. Egonaldi linguistikoa 2019. urtean zehar hasi eta elkarren segidako 3 hilabetekoa izan beharko du.

Kopurua

1.200 €ko 3 bidaia laguntza izanen dira.

Edizio honetan 3 bidaia laguntza emanen dira. Hala ere, esleitu gabe geldi daitezke neurri batean edo osotasunean, ebaluazio batzordeak aurkeztutako hautagaiek beharrezko baldintzak betetzen ez dituztela erabakiko balu.

Ikasleak

Eskaera egitean, IHEOeko iraupen luzeko bidaia laguntzaren onuradun izan nahi duten hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 2018-2019 ikasturtean IHEOeko ikaslea izatea.
- Goi mailako ikasketak egiten ari (Unibertsitatea edo Lanbide Heziketa) edo ikasketak bukatu eta enplegu bilaketa egoeran egon.
- IHEOeko beste bidaia-laguntzarik jaso ez izana.
- Deialdi honetako urtean laguntza edo bekarik jaso ez izana.

Iraupena

Egonaldi linguistikoak gutxienez elkarren segidako 3 hilabetekoa izan beharko du. Ezinbestekoa ez den kausa dela eta iraupena laburtuko balitz, ikasle bekadunak ez kontsumitutako egonaldiari dagokion diru zati alikuota itzuli beharko du. Itzulitako dirua, hurrengo urteko deialdiko kopuruari gehituko zaio.

Laguntza honekin kontzeptu hauek finantzatuko dira

- Ostatu-gastuak
- Joan-etorriko bidaia
- Aukeratutako ikastaroaren matrikula
- Emandako diru-kopurua bi zatitan hartuko du bekadunak, egonaldiaren hasieran eta bukatu ondoren.

Ekarri beharrekoa

Hautagaiek, ondorengoa ekarri beharko dute:

a) **Eskaera orria**. Erantsita dagoenaren araberakoa.

b) **Portfolioa** (gehienez orri 1 edo 2)

1. Curriculuma
2. Bidaia-plana
3. Aprobetxamendu linguistiko plana
4. Egonaldi honen bitartez epe ertain eta luzean zehar lortu nahi dituen helburu profesional eta pertsonalak

c) **Zinpeko aitorpena**, non publikoak zein pribatuak diren nazioko edo nazioarteko Administrazio edo Erakundeen laguntza edo bekarik ez duela jaso adieraziko duen.

d) Komunikazio-konpromisoa

1. Posta: egonaldian zehar eta 15 egunetik behin, material idatzia eta grafikoa bidali beharko du IHEOeko orrian dagoen blogaren bidez hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideei hautagaiaren bizipen horren berri emateko. Material hori posta elektroniko bidez bidali beharko da eoipjest educacion.navarra.es helbidera: testuak doc testu fitxategietan eta irudiak jpg formatuan bidali behar dira.
2. *Vox Populi*-rako artikulua: egonaldia bukatutakoan.
3. **Post-eredua**

200 edo 300 hitz kopurukoa eta argazkiak. Blogerako idatziko lukeen postaren simulazioa.

Ordainketa

1. ordainketa:

- Norberaren garraio-titulua. Joan-etorriko txartela.
- Ikastaroa egin nahi duen herrialdean ikastaro hori egiteko onartua izan dela egiaztatzen duen ziurtagiria, non egitaraua, iraupena, datak, balioa eta abar jarriko dituen.

2. ordainketa:

- Egonaldia egin duela egiaztatzen duen agiria, egon den Eskolak edo lantokiak luzatutakoa.
- **Artikulua**: Izandako esperientziaren berri emanen duen testu atsegina eta irudiak eta egonaldiaren balorazio pertsonala, IHEOeko aldizkaria den *Vox Populi*-n argitara eman daitekeena. Testuak gaztelaniaz edo ikasten ari den hizkuntzan idatzia izan beharko du eta egonaldian zehar egindako ikaslearen argazkiren bat ere gehitu beharko zaio.

Eskaerak aurkeztea
Eskolako Administrazioan, 2019ko martxoaren 15a arte.
Eskaera aurkezteak IHEOari baimena emango dio hautagaiaren merituen gainean informazioa biltzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion erakundeetan. Hautaketa prozesua bukatutakoan, ez da itzuliko hautagaiak aurkeztutako dokumenturik.

Hautaketa batzordea
Onuradunen aukeraketa egiteko Hautaketa Batzorde bat eratuko da. Batzorde hau IHEOeko Ikasketa Buruak eta eskolako bi irakaslek osatuko dute.

Ebaluazio irizpideak
Hautaketa Batzordeak ondoko irizpideak ebaluatuko ditu iraupen luzeko bidaia laguntzak esleitzerakoan:

- Curriculuma (gehienez 25 puntu)
- Bidaia eta egonaldiaren aprobetxamendu-plana (gehienez 25 puntu)
- Helburu profesionalak. Hautagaiaren lan ibilbidean egonaldiak izanen duen eragina (gehienez 25 puntu)
- Komunikazio gaitasuna. Post-ereduaren kalitatea (gehienez 25 puntu)

Hautaketa prozesua
Hautaketa prozesuak ondoko faseak izanen ditu:

- Batzordeak, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, hautagaiak aukeratuko ditu.
- Batzordeak hala baietsiko balu, finalista suertatu direnak elkarrizketa batera dei ditzake.
- Fase hau bukatu ondoren, esleipendunen behin betiko zerrenda agertuko da.

Onuradunen betebeharrak
Iraupen luzeko bidaia laguntzaren onuradunak ondoko hauek bete beharko ditu:

a) Emandako laguntza eta honen baldintzak idatziz onartu.
b) Bizipenaren berri eman. Egonaldian zehar eta 15 egunetik behin, material idatzia eta grafikoa Eskolara bidali bertako bloga hornitzeko.
c) Egonaldia bukatutakoan beharrezko egiaztagiriak eta IHEOeko *Vox Populi* aldizkarirako artikulutxoa aurkeztu.
d) Esleipen ekitaldian egon.
e) Aukeratutako hautagaiak bidaia laguntzari uko egiten badio, hurrengoari emanen zaio.
f) Bidaia laguntza hau, beste Administrazio edo erakunde publikoren batek emandako antzeko laguntzarekin bateraezina da.

Epeak
Eskaerak aurkezteko: 2019ko martxoaren 15a
Esleipendunen zerrenda: martxoaren 31
Esleipen ekitaldia: apirilaren 3a

Uko egitea
Abuztuaren 1a baino lehen egonaldia egiteko planik egin ez eta 1. zatia ordaindu ahal izateko dokumentazioa ekarri ez duen ikasleak bidaia laguntza edukitzeko eskubidea galduko du, eta zerrendako hurrengoari emanen zaio.